# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos


HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA-SAILA

Hezkuntza-Saileko Irakaskuntza-Artezkaritzaren 1982garreneko Uztailaren 19ko ERABAKIA, Batxillerreko Ikasketa-Egitamuari buruz 1975garreneko Epailaren 22ko Ministeritza-Aginduak (1975-VII-12ko "Boletín Oficial del Estado") ohartemandakoa egiteratzeko araupideak emanaz. 2012

Hezkuntza-Saileko Irakaskuntza-Artezkaritzaren 1982garreneko Uztailaren 30ko ERABAKIA, Donostiako "Bidebieta" izeneko Batxillerreko Institutoan, E.A.T.P.-alorreko berarizko gai gisa, Informatika emateko baimena emanaz. 2012

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

RESOLUCION de la Dirección de Enseñanzas del Departamento de Educación de 19 de Julio de 1982, por la que se dan instrucciones para el desarrollo de lo dispuesto en la O.M. de 22-III-1975 sobre el Plan de Estudios del Bachillerato (B.O.E. 12-VII-1975). 2012

RESOLUCION de la Dirección de Enseñanzas del Departamento de Educación de 30 de Julio de 1982, por la que se autoriza la impartición de Informática como especialidad de E.A.T.P. en el Instituto de Bachillerato de Bidebieta, de Donostia. 2012


# Iragarpenak
# Anuncios


HERRIZAINGO-SAILA
*Adierazpide eta Elkartzepide-Artezkaritza*

Eusko Jaurlaritzako Elkargune Tinkoen Ordezko Sarea osatuko duten adierazgailu eta hargailu-tresnerien zuzkiketa, erabiltze eta ihardutze-aukeran, akuratzeko HERRI-LEHIAKETA. 2013

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
*Dirección de Transmisiones y Comunicaciones*

CONCURSO PUBLICO para la adjudicación del suministro en condiciones de uso y funcionamiento de los equipos transmisores y receptores que constituirán la Red Secundaria de Enlaces Fijos del Gobierno Autónomo Vasco. 2013


# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA**

**1218**

Ekainaren 30eko 7/1982 LEGEA, "Eskola-Osasunaz".

Legebiltzarrak, "Eskola-Osasuna"ri buruzko Ekainaren 30eko 7/1982 Legea, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko guztiei. Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet Euskadiko herritar, norbanako eta agintari guztiei.

Gasteizen, 1982garreneko Ekainak 30.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Jaurlaritzak, osasuna bere osoan ikusiz bere ekintzapideak aurrehartzearen eta suztapenaren aldetik egiteratzeko asmoa du. Nolakoz eta zenbatekoz, eskola-ikasleek osatzen dute herritarren zatirik haundienetakoa.

Eskola-osasunari buruzko Legeak osasunaren alde aritzeko lanabes eraginkor bat izan nahi du, osasun hori bere zabalenean ikusita, eta horretan osasun-ikerketaz funtsezko gertatzen dira, sikopedagojiaren edo osasunbide-hezkuntzaren alorretakoez ahaztu gabe, nolanahi ere.

Honako agintepide hauek ditu Autonomia-Elkarteak alor honetan:

**PRESIDENCIA**

**1218**

LEY 7/1982, de 30 de Junio, de "Salud Escolar".

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento ha aprobado la Ley 7/1982, de 30 de Junio, de "Salud Escolar". Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades que la guarden y hagan guardarla.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de Junio de 1982.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

EXPOSICION DE MOTIVOS

Es propósito del Gobierno potenciar un concepto integral de la salud encaminando las actuaciones hacia la prevención y promoción de ésta. Uno de los sectores más importantes, cualitativa y cuantitativamente, de la población la constituyen los escolares.

La Ley de Salud Escolar pretende ser un instrumento eficaz para la promoción de la salud del escolar, entendida en su concepto más amplio, donde los exámenes de salud son una parte fundamental, pero sin olvidar los aspectos sicopedagógicos o la educación sanitaria.

La Comunidad Autónoma en esta materia tiene las siguientes competencias:

— Osasunbidetzari buruz bakarreangoa, abenduaren 18ko 3/79 Oinarrizko Legez onartutako Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 10.15 Atalak dionez.

— Esandako Estatuto honen 18garren Atalak dionez, Erresumaren Barne-Osasunketaren alorreko oinarrizko legeen legegintza-osaketa eta egiterapena Euskal Herriari dagozkio.

— Irailaren 7ko 2.209/1979 Errege-Dekretoaren 5.1.e) Atalaren arauera Euskal Autonomia-Elkartean Osasunketaren alorrean eskuratutako agintepideen artean, ama, haur, eskola, industria, lan, kirol eta adimen-osasunketa-egitasmoak daude, eta bai gaitz kutsakor nahiz kutsakor ez direnei, abereegatikako gaitzei eta osasunbide-hezkuntzari buruzkoetango etengabeango osasunketa-ekintzak ere.

Azken batean, Lege hau, XIV Oinarri-Arauan Erresumaren eskoletara nahiz norbanakoen jabetzapekoetara doazen ikasleentzako osasun-sorozketa nahitaezko izango dela dion 1944garreneko azaroaren 25eko Erresuma-Osasunketaren Oinarri-arauen Legea osatzera dator; eta bai 36garren Atalaren 11garren zatian, ikasleei behar daitezen mediku-ikerketarako, osasunketaren artarako eta aurrea hartzezko medikutza-arretarako eskubidea aitortzen dien ekainaren 19ko 5/80 Oinarrizko Legea ere.

Bestalde, Erresuman indarrean egon eta gai honetan osatze-bidez erabilgarri den araupidetza (Osasunketa eta Gizartesegurantza-Ministeritzaren abuztuaren 25eko 2.473/1978 Dekretoa) ez da behar adinekoa, eta horrek —besteak beste— ekar zezakeen, agian, ez egiteratu izana.

Horregatik, Lege honek, ahalik eta sakonen izatera eta dirueskuarteak gehituala osoagotzera joko duten osasun-ikerketen egitasmoketa baten bidez batipat aurrea hartzezko medikutza-bidetik abiatzea.

Orain arte gurean egitamu bati darraizkiola egin gabeko Aintzin-sendabideen artean bat, haurraren Aginen Aintzin-sendakuntza eta osasunbideak.

Bai gorputzaren eta bai adimenaren bete-beteko hezkuntza du berenezko ezaugarri, biolojiaren aldetik, eskolarako adinak.

Horretxegatik, hain zuzen, Osasunaren Lege batez erantzuna eman beharreko arazo bereziak gertatzen dira, Erantzun horrek, lehenengo eta behin haur bakoitzaren benetako egoera ezagutu, eta guztizko biztanle-kopuruan ehuneko 20 hartzen dituen sail horren osasunaz aurrez arduratzezko eta indartzeko neurriak araupetu eta jarri ditzan eremu baten barruan egon behar du.

Eskola-aldia dela eta haurrak zainpean euki ahal izateak baino ez du bai banaka bai taldeka osasunaren erakuskari garrantzitsuenetakoa izan eta egiten hain erraza den hazkuntza-marraren neurketa egingarri egiten.

Hasieran arin eta gero larriago izan daitezkeen makestasunei antz ematea, hoiek eskola-lanentzako eragozpen izan eta etorkizunerako gara-adinekoen eritasuna-modu askoren iturri bait dira.

Haurrak eskolan elkarrekin bizitzeak gaitz batzuk zabaltzeko giro egokia sortarazten du; hortik, Legeak ohartemandako helburuen artean txertaketekiko arta eta bakoitzean behar daitezen berarizko neurriak hartzea sortu izana.

Haurra giroari ez egokitzea, jokabide errebesak azaltzea, Eskolan hastean haurrak berri-berritan aurkitzen duen

— Exclusiva en cuanto a Higiene, según en artículo 10.15 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/79, de 18 de Diciembre.

— El artículo 18 del citado Estatuto señala que corresponde al País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica del Estado en materia de Sanidad Interior.

— Entre las competencias transferidas a la Comunidad Autónoma Vasca en materia de Sanidad, de conformidad con el artículo 5.1 c) del Real Decreto 2.209/1979, de 7 de Setiembre, figuran los programas sanitarios tendentes a la protección y promoción de la salud, tales como los de higiene maternal, infantil, escolar, industrial, laboral, deportiva, mental, así como las acciones sanitarias permanentes en materia de enfermedades transmisibles y no transmisibles, antropozoonosis y educación sanitaria.

La presente Ley viene, en definitiva, a desarrollar la Ley de Bases de Sanidad Nacional, de 25 de Noviembre de 1944, que en su Base XIV expresa que será obligatoria la asistencia sanitaria de los que asistan a establecimientos del Estado, como a instituciones particulares; asimismo, la Ley Orgánica 5/80, de 19 de Junio, por la que, en su artículo 36, apartado 11, establece el derecho de los alumnos a que se realicen los reconocimientos médicos necesarios, al control sanitario y a la atención médico-preventiva adecuada.

Por otro lado, la normativa vigente del Estado, de supletoria aplicación en este tema (Decreto 2.473/1978, de 25 de Agosto, del Ministerio de Sanidad y Seguridad Social), adolece de insuficiencia, pudiendo haber sido esta la causa —entre otras posibles— de que no se haya llevado a efecto.

De ahí que las líneas de acción de la Ley se dirijan de forma especial a los campos de medicina preventiva, a través de una programación de exámenes de salud que tenderán a ser lo más completos posibles y a enriquecerse progresivamente en función de una mayor disponibilidad presupuestaria.

Entre las medidas profilácticas, no abordadas hasta el presente de una manera sistemática entre nosotros, se encuentra la Profilaxis e Higiene del aparato dental del niño.

La edad del escolar está caracterizada por darse en ella el fenómeno biológico del crecimiento, tanto corporal como psíquico, en toda su plenitud.

Será también por ello que en estos años se presentan problemas específicos a los que una Ley de Salud tiene que dar respuestas adecuadas. Respuestas que se han de enmarcar en un Programa que identifique en primer término la situación real de cada niño y que reglamente y arbitre las medidas de prevención y promoción de la salud de esta colectividad, que representa nada menos que el veinte por ciento de la población total.

La simple evaluación de la curva de crecimiento, índice de salud de los más importantes tanto a nivel individual como colectivo, y tan fácil de realizar, sólo es posible por la coyuntura de la escolarización que permite tenerlos controlados.

La detección de malformaciones y disfunciones, leves en su comienzo y más graves después, crean problemas de rendimiento escolar y que el día de mañana abocarán a diversas formas de patología del adulto.

la convivencia de los niños en la Escuela crea un clima favorable a la transmisión de ciertas enfermedades y de ahí que entre los objetivos previstos en la Ley se encuentre el control de vacunaciones y la adopción de medidas específicas propias de cada caso.

La inadaptación del niño al ambiente, la aparición de formas anómalas de comportamiento, la detección de conflictos

gizarte-egoerak sortarazitako nahaspideei antz ematea, horra hor haurra hain sentibera eta giroari egokitzeko eta erantzuteko hain gai deneko adin horretan ahalik eta bizkorren heldu beharreko ebazkunak.

Bukatzeko, eskolako eta inguruko giroak, gurasoak bezala gizarte osoak ere haurrei dagozkien gertakariei egiten dieten arretak, Eskolako Osasunarekiko Egitasmoan haurrarengana ezezik gizartearen zati haundi batera ere iritsi daitezen osasunketarekiko argipideak eta hezkuntzarentzako aukerarik onena dakartza.

Legeak erantzunbehar-soka bat jarriko ez balu, orain arte esandakoak asmo-adierazpen huts lirateke; horregatik, honako hauei guzti hauei dagokie, nola edo ala, eginbeharrei erantzun beharra: Gurasoei, ikastegietako irakasle eta irakasleez bestekoei, berenezko medikuei eta, azken baten, Osasunketa eta Gizartesegurantza-Sailari.

Ez gaitezen, bestalde, udalen lankidetasunaz ahaztu, berenezko medikuak, toki-osasunketako herrilanari direnez, aginte-egituraz Alkatearen artezko menpeko direla kontutan izanik.

Dirubideei buruz, bai Herri-Agintaritzaren pentzutangoak bai Norbanako-jabetzapekoentzakoak Herri-Agintaritzaren pentzutangoak izango direla agintzen du Legeak. Eta, hori osasunarekiko eskubidearen —ari gareneko honetan eskola-ikaslearenaren— izakera bera dela eta, horrekiko aintzinzaingoa Arduralaritzari bait dagokio, Konstituzioak ematen dion eratu eta babesa eman beharra inolako bereizikeriarik gabe egiten duela.

Garbi dagoenez, Legeak dakartzanen egiterapenaren alderdi bereziak, beharrezko eritzi dakien erabakien bidez osabideratuko dira, arau-bidez.

## I IDAZPURUA
## OROTARIKO ERABAKIAK

*Lehenengo Atala.*—Lege honek diona, Euskal Autonomia-Elkartearen mugartean dautzan Eskolaurre-Hezkuntzaren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren, Berarizko Hezkuntzaren edo laguntza-ikasgelen, Batxillerraren eta Lehen-mailako Lanbide-Hezkuntzaren irakaskuntza-mailetako herri-jabetzapeko nahiz norbanako-jabetzapeko Ikastegiei dagokie.

*2garren Atala.*—Honako hauek atxiki beharko zaizkio Lege honetan agindutakoari: esandako maila hoietako ikasleak, eta bai gurasoak, kuradore edo arduradunak, eta bai irakaskuntza-maila hoiek ematen dituzten Ikastegietako artezkaritzakoak, irakasleak, irakasleez bestekoak eta baimendunak ere.

Halaber, horren erabiltze-eremuak eraikintzetako, eta lehendik dauden edo berritan jarri daitezen antolapidetza eta baliapideen osasunbide eta osasunketa-aukerak ere hartzen ditu.

*3garren Atala.*—Lege honetan ohartemandako egitekoek, behar hainbateko osasunketazko eta aurrea hartzezko eskuarteak ematearen bidez, bai gorputz, bai adimen, eta gizarte-aldetik eskola-osasunari bere onean eusten eta hobetzea dute xede.

Ekintzapideak, honako hauetara joko dute lehenengo eta behin:

— Eskola-ikasleen, Ikastegietako irakasle eta irakasleez bestekoen aldian-aldiango osasun-ikerketak.

— Eskola-ikasleen arauzkontrako jokabideez ohartzea eta hoiekiko arta.

— Osasunketa-hezkuntzan gaitzezko egitarauak.

ante la nueva situación social que el niño estrena al entrar en la Escuela, son problemas que deben ser abordados con premura en esta edad en la que el niño muestra tanta vulnerabilidad como capacidad de adaptación y respuesta.

Finalmente, el ambiente de la escuela y su entorno, el interés que tanto padres como la sociedad en conjunto prestan a los acontecimientos que rodean al niño, facilita el que en todo Programa de Salud Escolar se den las mejores condiciones para realizar una información y educación sanitaria que lleguen no sólo al niño sino a una gran parte de la sociedad.

Lo anterior sería una mera declaración de propósitos si la Ley no estableciese un engranaje de responsabilidades; así, están implicados de alguna forma en el cumplimiento de las obligaciones: los padres, personal docente y no docente de los centros, directores, médicos titulares y, en última instancia, el Departamento de Sanidad y Seguridad Social.

No se olvida, por otra parte, la colaboración municipal, teniendo en cuenta que los médicos titulares, como funcionarios al servicio de la sanidad local, tienen una dependencia jerárquica inmediata del Alcalde.

En cuanto a la financiación, la Ley establece sea a cargo de los Poderes Públicos, tanto por lo que respecta a los Centros Docentes Públicos como a los Privados. Y ello teniendo en cuenta la propia naturaleza del derecho a la salud —en este caso del escolar— cuya prevención debe garantizar la Administración, con la obligación organizativa y tutelante que la Constitución le atribuye, sin distinción alguna.

Como es obvio, los distintos extremos de ejecución del contenido de la Ley, se verán desarrollados de forma reglamentaria mediante las disposiciones que se juzguen precisas.

## TITULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.º*—El contenido de la presente Ley será de aplicación en los niveles docentes de Educación Pre-Escolar, Educación General Básica, Educación Especial o aulas de apoyo, Bachillerato y Formación Profesional de primer grado de los Centros, tanto públicos como privados, ubicados en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca.

*Artículo 2.º*—Deberán ajustarse a lo dispuesto en la presente Ley: los alumnos de los niveles anteriormente citados, así como los padres, tutores o personas responsables, personal directivo, profesores, personal no docente y titulares de los Centros en que se impartan dichos niveles.

Su ámbito de aplicación se extiende, asimismo, a las condiciones higiénico-sanitarias de los edificios, instalaciones y equipamientos ya existentes o de nuevo establecimiento.

*Artículo 3.º*—El ejercicio de las funciones previstas en la presente Ley tiene como finalidad la conservación y fomento de la salud del escolar en sus vertientes física, mental y social mediante la provisión de los recursos sanitarios y preventivos suficientes.

Las actuaciones se dirigirán, prioritariamente, a lo siguiente:

— Exámenes periódicos de salud de los escolares, profesores y personal no docente de los Centros.

— Detección y seguimiento de comportamientos irregulares de los escolares.

— Programas formativos de educación sanitaria.

— Janariekiko osasunbideak eta eskola-jangeletako elikadura-zaingoa.

— Eskola-alorrean zabaldu daitezkeen gaitzekiko aurrea hartzezko ekintzak.

— Irakastegi eta antolapideen osasunbide eta osasunketaren aldeetikako egoerari bere onean eustea eta hobetzea.

## II IDAZPURUA
## EGINBEHARRAK

### I Atalburua
### Ikaslegoari buruz

*4garren Atala.*—Eskolan lehenengoz sartzerakoan, ikaslearen guraso edo kuradoreek, medikutza-eskolako xehapen-txartelari erantsiko zaion osasun-altzinekiko itaunketa-orri bat beteko dute; ikastegiz aldatuz gero, medikutza-eskolako xehapen-txartela medikutza-eskolako zehaztapidetzekin batera joango da.

*5garren Atala.*—Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasleei osasun-ikerketak Lehenengo, 5garren eta 8garren ikasturteetan egingo zaizkie, halabeharrez, BUP-eko eta Lanbide-Hezkuntzako lehenengo aldiko ikasleei berriz, bakoitzari bere ikasketetako azkeneko urtean.

Eskola-aurreko urteetan arauz erabaki daitezen osasunketa eta sendabide-neurriak hartuko dira.

Osasun-ikerketa hoien zertazkoa, noizkoa eta zernolakoa, Osasunketa eta Gizarteseguranutza-Sailak eta Hezkuntza-Sailak horretarako egin ditzaten araupidetan zehaztuko dira.

Medikutza-eskolako xehapentxartela bete ondoren, bertako ondorioen berri ikaslearen guraso edo kuradoreei ematea beharrezkoa izango da.

*6garren Atala.*—Ardura bere gain duen irakasle bakoitzak, ikaslearen jokabidearekiko siko-pedagojiazko xehapenak eman beharko ditu.

*7garren Atala.*—Kasu berezietan, edo aurreko bi ataletan esandako ikerketen ondorioz, ikasle batzuei osatzebidezko ikerketa bat egin beharra atera ahal izango da.

*8garren Atala.*—Eritasunegatikako nahiz ezbeharra gertatu izanagatikako hutsegite guztiak ardura bere gain duen dagokion irakasleari jakinarazi beharko zaizkio, ikaslearen guraso, kuradore edo arduradunei eskuratuko zaien eredu-itxurako idazkiz.

*9garren Atala.*—Osasunketa eta Gizarteseguranutza-Sailak Hezkuntza-Sailarekin elkar hartuta, Ikastegietako ikasle, guraso, irakasle eta irakasleez bestekoentzako Osasunketa-Hezkuntza ematezko egitarauak eratuko ditu.

### II Atalburua
### Irakaslegoari eta irakasleez bestekoei buruz

*10garren Atala.*—Lege honek hartzen dituen Ikastegietako irakasle eta irakasleez besteko lanariei ikasturtearen hasieran osasun-ikerketa bat egin beharko zaie; ikerketa horren nolakotasunak arauz erabaki eta hortik atera daitezen ondorioak dagokion osasunketa-agirian idatzita utziko dira.

— Higiene de la alimentación y vigilancia alimentaria de los comedores escolares.

— Acciones preventivas de enfermedades transmisibles en el medio escolar.

— Mantenimiento y promoción de las condiciones higiénico-sanitarias de los centros e instalaciones docentes.

## TITULO II
## OBLIGACIONES

### Capítulo I
### En relación con el alumbrado

*Artículo 4.º*—Al inicio de su vida escolar, los padres o tutores del alumno cumplimentarán un cuestionario de antecedentes que se adjuntará a la ficha médico-escolar la cual acompañará al expediente médico-escolar en caso de traslado de centro.

*Artículo 5.º*—Los exámenes de salud se practicarán obligatoriamente a los alumnos de EGB en los cursos 1.º, 5.º y 8.º. Asimismo a los alumnos de BUP y Formación Profesional de primer grado, en el último año de los respectivos estudios.

En los cursos de pre-escolar se realizarán las medidas sanitarias y de profilaxis que se determinen reglamentariamente.

El contenido, así como el tiempo y modo de estos exámenes de salud serán determinados en la normativa que al efecto se elabore por los Departamentos de Sanidad y Seguridad Social y de Educación.

Una vez cumplimentada la ficha médico-escolar, será obligatorio comunicar los resultados a los padres o tutores del alumno.

*Artículo 6.º*—Cada profesor encargado de la tutoría estará obligado a cumplimentar los datos psico-pedagógicos del comportamiento del alumno.

*Artículo 7.º*—En casos especiales, o como consecuencia de los exámenes o reconocimientos expresados en los dos artículos anteriores, podrá establecerse la necesidad de que determinados alumnos requieran un reconocimiento complementario.

*Artículo 8.º*—Toda falta de asistencia, por enfermedad o accidente, deberá ser comunicada al correspondiente profesor encargado de la tutoría en escrito que, según modelo, se facilitará a los padres, tutores o personas responsables del alumno.

*Artículo 9.º*—El Departamento de Sanidad y Seguridad Social, en colaboración con el de Educación, desarrollará programas formativos de Educación Sanitaria, dirigidos a los alumnos, padres y personal docente o no docente de los Centros.

### Capítulo II
### En relación con el profesorado y personal no docente

*Artículo 10.*—Todos los profesores y personal no docente de los Centros a que se refiere esta Ley, deberán ser sometidos a un examen de salud al comienzo del curso escolar, cuyas características se determinarán reglamentariamente y sus resultados se anotarán en el documento sanitario correspondiente.

*11garren Atala.*—Gaisorik egoteagatik nahiz ezbeharra gertatu izanagatik Ikastegirako ezein huts Ikastegiko Artezkaritzari jakinarazi beharko zaio, horren itxura-eredua bere garaian ezagutaraziko den idatziz.

**III Atalburua**
**Eskola-eraikintza eta antolapidetzei buruz**

*12garren Atala.*—Ikastegien etxe, antolapide, altzari eta gainontzeko gai guztiek, legez jarritako osasunbide-osasunketazko baldintzak eta dekretoz eman daitezen segurantzabideak bete beharko dituzte.

Taldeentzako jangela eta sukaldeei, baita hauei atxikitako lanarigoari ere, buruzko araupidetza bete dedinari berarizko arreta berezia jarriko zaio.

Halaber, Ikastetxeetan, bertako artezte-arduradunek erretzaileentzako izango diren tokiak zehaztuko dituzte.

*13garren Atala.*—Irakastegi guztietan, nahitaez, osasunbide-osasunketazko eta presako laguntzetarako behar diren baliapideak egongo dira; hoien gutxienezkoa arau-bidez zehaztuko da.

III IDAZPURUA
DIRUBIDEAK

*14garren Atala.*—Ikastegiak Osasunketa eta Gizarte-Segurantzaren medikutza-osasunketarako tresneriaz baliatzen badira, doakien Herri-Agintariek egingo dituzte, bere Diruegitamuen pentzutan, Lege honek aipatzen dituen Ikastegietako Osasun-egitasmoak gauzatzeak ekar ditzaten gastuetarako dirubideak.

Heurek akuratutako medikutza-osasunketarako tresneriez baliatu daitezen Ikastetxeen gain joango da tresneri hoien dirubide-kontua.

IV IDAZPURUA
EKINTZAPIDEEN ANTOLAKETA

**I Atalburua**
**Orotariko Araupideak**

*15garren Atala.*—Osasunketa eta Gizarteseguruantza-Sailari dagozkio egitamuketa, artezkaritza, arta, ikerlaritza eta, hala baledi, egiterapena, eta hori, esandako ekintzapide hoien ikerlaritza, gaia dela eta, ekintzapide hoiek eskuratuta dauzkaten arduralaritza-erakundeek egin dezatenaren kaltetan gabe.

*16garren Atala.*—Udalek eta, halabeharrez, Foru-Erakundeek, dagokien agintepide eta mugartean, Lege honek araupetzen dituen ekintzapidetarako eta hoien artarako bere laguntza eman beharko dute.

*17garren Atala.*—Halaber, herri-jabetzapeko nahiz norbanako-jabetzapeko Irakastegietako Artezkariek ere Lege honen alderdi guztiak betetzera behartuta daude.

Honako hauek dituzte artezkariak berarizko eta gutxienezko eginbehar:

— Osasun-ikerketak eta gainontzeko osasunketa-artapideak egiteratu daitezeneko bermea.

*Artículo 11.*—Toda interrupción de la asistencia al Centro por enfermedad o accidente deberá ser comunicada a la dirección de dicho Centro en escrito que, según modelo, se facilitará oportunamente.

**Capítulo III**
**En relación con los edificios e instalaciones escolares**

*Artículo 12.*—Los edificios, instalaciones, mobiliario y demás material de los Centros Docentes deberán reunir las condiciones higiénico-sanitarias legalmente establecidas, y de seguridad que se establezcan mediante decreto.

Especialmente se ejercerá una particular vigilancia del cumplimiento de la normativa referente a comedores colectivos y cocinas, así como al personal adscrito a los mismos.

Asimismo, se delimitarán, en los Centros Docentes y por sus órganos directivos, los espacios destinados para fumadores.

*Artículo 13.*—En todo Centro Docente existirá necesariamente, para prestaciones higiénico-sanitarias y de urgencia, el equipamiento preciso, cuyo contenido mínimo será determinado reglamentariamente.

TITULO III
FINANCIACION

*Artículo 14.*—El costo de desarrollo de los programas de salud, a los que se refiere esta Ley, en los Centros Docentes será financiada por los poderes públicos afectados con cargo a sus propios presupuestos, siempre que dichos Centros utilicen los equipos médicos sanitarios del Departamento de Sanidad y Seguridad Social.

Los Centros Docentes que utilicen equipos médicos sanitarios por ellos contratados, los financiarán a su cargo.

TITULO IV
ORGANIZACION DE LA ACTIVIDAD

**Capítulo I**
**Normas generales**

*Artículo 15.*—La planificación, dirección, control, inspección y ejecución, en su caso, corresponden al Departamento de Sanidad y Seguridad Social, sin perjuicio de que la inspección de dichas actividades se lleve a cabo por los organismos administrativos que, por razón de la materia, las tengan atribuidas.

*Artículo 16.*—Los Ayuntamientos, y en su caso los Organos Forales, deberán colaborar dentro de su competencia y ámbito territorial en la ejecución y control de las actividades reguladas en la presente Ley.

*Artículo 17.*—Los directores de los Centros Docentes, tanto públicos como privados, están obligados asimismo al cumplimiento de los extremos contenidos en la presente Ley.

Son obligaciones específicas mínimas de los directores las siguientes:

— Asegurar la práctica de los exámenes de salud y demás controles sanitarios.

– Lege honetan eskatzen diren itaunketa, xehapen-orriak eta gainontzeko arduralaritza-agiriak bete eta agiri-gordetegiratu daitezenen eta hoien isilpekotasunaren ardura izan.

– Irakasleek eta irakasleek besteko lanariek osasunketaren aldetik dituzten eginbeharrak betetzen dituenekiko zaingoa.

**II Atalburua**
**Lanarigoa eta Irakastegiak**

*18garren Atala.*–Dagokion herriko osasunketa-titulodunek, bere agintepideen esparruan, Lege honen 3garren, 5karren eta 10garren Ataletan aipatzen diren aldian-aldiango osasun-ikerketak egin beharko dituzte.

*19garren Atala.*–Osasunketa eta Gizarteseguranrza-Sailak, Legea benetan bete dedina bermatzeko behar hainbat gizakizko eta gauzazko eskuarte antolatuko ditu. Horretarako, sordaitezen mediku, psiko-pedagogo eta laguntzaileen beharrak osatuko ditu.

*20garren Atala.*–Ikerketa Irakastegi guztietan era berean egingo eta erasota utziko da.

Osasunketa eta Gizarteseguranrza-Sailak eskuratuko dizkie horretarako irarkiak.

*21garren Atala.*–Norbanako jabetzapeko Irakastegiek akuratutako mediku eta laguntzaileentzako ordainsariak arauz ezarriko dira, dagozkien Lanbide-Elkarteei entzun ondoren.

V IDAZPURUA
ERANTZUNBEHARRA ETA ZIGORRAK

*22garren Atala.*–Osasunketa eta Gizarteseguranrza-Sailak, Lege honek hartzen dituen norbanakoek izan ditzaketen erantzun-beharrak zehazteko zehaztapidetzak hasiko ditu –edo hala dagokionean hoien saloa egingo du– Erresuman indarrean dauden araupideen arauera bidezko lirateken zigorrak jartzeko.

GEHITZEZKO ERABAKIA

*Lehenengoa.*–Lege hau eta bera gauzatu dezaten osatzezko erabaki guztioak Elkarte Autonomiaduneko Erakundeen eta Kondaira-Lurraldeen arteko Harremanen Legeak eta Osasunaren Euskal Zerbitzuaren Legeak eskola-osasunaren esparruan ohartemaan dezatenari egokituko zaizkie.

*Bigarrena.*–Lege honetan ohartematen den antolapidetzarako eta ihardunerakó egitura, Osasunaren Euskal Zerbitzua ihardunean jarri izanaren ondorioz sortarazi dedin sorospidetza berria osatzera sartuko da.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*–Toki-Osasunketaren Araudia betetzetik salbuetsitako Udaletan (Bilbon eta Donostian), Lege honetan ohartemandakoa betetzeko beharrezko izan daitezen neurriak Udal bakoitzaren bitartez gauzatuko dira.

*Bigarrena.*–Eusko Jaurlaritzak emango ditu Lege hau egiteratzeko behar daitezen manuak.

– Cuidar de la cumplimentación, archivo y confidencialidad de los cuestionarios, fichas y restante documentación administrativa exigida por esta Ley.

– Vigilar el cumplimiento de las obligaciones sanitarias del personal docente y no docente.

**Capítulo II**
**Personal y Centros Docentes**

*Artículo 18.*–Los sanitarios titulares de la localidad de que se trate están obligados a realizar los exámenes periódicos de salud a que se refieren los artículo 3, 5 y 10 de la presente Ley, dentro de sus competencias.

*Artículo 19.*–El Departamento de Sanidad y Seguridad Social arbitrará los medios humanos y materiales suficientes para garantizar el efectivo cumplimiento de la Ley. A este fin cubrirá las necesidades de personal médico, psico-pedagógico y auxiliar que se produzcan.

*Artículo 20.*–El reconocimiento se practicará y documentará de forma idéntica en todos los Centros Docentes.

Por el Departamento de Sanidad y Seguridad Social se les proveerá del material impreso exigido.

*Artículo 21.*–Las Tarifas a devengar por el personal médico y auxiliar contratado por los Centros Docentes privados serán establecidas reglamentariamente, oídas las Asociaciones Profesionales correspondientes.

TITULO V
RESPONSABILIDAD Y SANCIONES

*Artículo 22.*–El Departamento de Sanidad y Seguridad Social incoará –o, en su caso, propondrá– los oportunos expedientes, al objeto de establecer las responsabilidades en que hubieren podido incurrir las personas a quienes la presente Ley obliga, con imposición de las sanciones a que hubiere lugar, con arreglo a la normativa vigente en el Es tado.

DISPOSICION ADICIONAL

*Primera.*–La presente Ley y las disposiciones complementarias que la desarrollen se adecuarán a lo que en el ámbito de la salud escolar prevean la Ley de Relaciones entre las Instituciones de la Comunidad Autónoma y los Territorios Históricos, y la Ley del Servicio Vasco de Salud.

*Segunda.*–La estructura organizativa y funcional prevista en la presente Ley se integrará en la nueva red de asistencia que se cree como consecuencia de la puesta en funcionamiento del Servicio Vasco de Salud.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*–En los Municipios exceptuados de la aplicación de la Reglamentación de los Sanitarios Locales (Bilbao y San Sebastián), la instrumentación de las medidas necesarias para el cumplimiento de lo previsto en esta Ley se efectuará a través de los Ayuntamientos respectivos.

*Segunda.*–Por el Gobierno Vasco se dictarán las disposiciones necesarias para el desarrollo de esta Ley.